

# Euskararen plangintza

## Mahainguru hartan erantzun gabeko itaunak (VI)

...Beharbada hemengo solaskideek besterik ere izango lukete galderari erantzuteko; baina, aurrera jarraituko dugu. Ikusentzuleen aukera da, gogoan izan! Goazen, bada, hurrengo itauna entzuterara. Gabon.

—Gabon, bai. Hor zaudetenok, denok kulturaren mundutik edo, zatozte nonbait. Inor ez da agertu alderdi politiko jakinen baten ordezko, jakin badakigun arren, horko batek edo bestek kargu politikoak ere badauzkatela edo eduki dituztela. Baina ez noa horretara.

—Ipini ezazu orduan zure itauna. Pentsa ezazu zure ondoren beste hainbat galdegile daudela oraindik. Itauna, mesedez.

—Nere kezka da, zein den euskal alderdi politikoaren erantzuna hor gaur erabili den gaiari buruz, hizkuntz apolitikari buruz hitzegi

Euskararen arazoa politiko dela eta euskararen plangintza politika orokorrean sartzen dela, esana eta errepikatuta dago lehen ere. Ez dago, beraz, horretan luzatu beharrik.

Galdegileak agertu duen kezka nik neuk ere sarritan eduki dut: alderdi politikoek arma politiko gisa erabiltzen dutela euskara, alegia. Beren burua abertzaleztat daukaten alderdi politikoek beste alderdiei, abertzaleei eta batez ere estatualistei jaurtuzko armatzat erabiltzen dute euskara. Eta alderantziz, alderdi estatualistek ere beraien kontra jaurtuzko armatzat hartzen dute sarritan euskara; eta horretatik beren buruak defenditu beharrean aurkitzen dira. Nere ustez oso kalgearria da gure hizkuntza nazionala alderdi politikoaren arteko borrokarako arma gisa erabiltzea.

Horren kontra esan beharra dago, euskara ez dela inolako alderdi politiko edo sozialen monopolioa: ezta abertzaleen monopolioa ere. Euskara normalkuntzara iritsiko bagara, lehen pausotako bat hauxe da: Euskara Herri honen lehen hizkuntzatzat alderdi politiko eta herritar guztiek onartzea. Hori bakarrik da, euskara nolabait oinarritzat edukiko duen proiektu nazionalera herritar guztiak eta alderdi politiko denak erakartzea. Erakarki egin behar da jendea, euskararen arazoa denena dela sinesterraziz. Horregatik oso arrisksua da euskara arma politikoztat erabiltzea, «besteak» erasoepen ikusiko dutelako beren burua, eta euskara defenditu beharrean, «euskara defenditu beharrean» aurkituko direlako.

Hori esan ondoren, alderdi

politikoek euskararen normalkuntzari buruz duten eginkizunari eta erantzukizunari buruz da itauna. Bi aldetara begiratu behar zaioa uste dut gai horri: alderdi politikoek euskal gizartearentzat eta Euskal Herriarentzat duten proiektu politikoak, euskararen berreskurapenari begira; eta alderdi horiek beren erakunde barrura begira duten proiektua, alderdia bera euskalduntzeko.

Lehen aldeari dagokionez, ez dago zalantzarik, alderdi «abertzale» guztientzat behintzat funtsezkoa izan beharko lukela euskararen berreskurapenari buruzko kapituluak, herri honen berreirakuntza nazionalerako proiektuak. Plangintza orokorra eta euskararen normalkuntzarako politika boterean dagoen alderdiak zehaztu eta markatu behar baldin bada ere, edozein alderdi nazionalaren programa politikoan euskarari buruzko kapituluak ez dauka propagandarako eslogandetan edo asmo abstraktuetan gelditzerik, sarritan gertatu ohi denez. Bestalde, inoiz mahaingurutan edo komunikabideen aurreran euskararen berreskurapenari buruz beren eritzia eta programa agertzea eskatzen zaie, sarritan badute joera alderdi politikoek, ordezkarri «boluntariaren» bat bidaltzekoa, alderdiaren aurpegia nolabait edertzeko. Baina gehienetan horietatik daude sinetsienak, beren eritziak, alderdiaren ize-nean agertu behar dituztenak, eta beraiek agian benetan sinesten eta alderdiaren barruan bultzatzen dituztenak, ez diela alderdiko gehiengoaren eritzi eta jokabideari erantzuten. Agian nahiko lukete kide boluntarista horiek beren alder-

denez. Nere susmoa da, alderdi politikoentzat sarritan euskara arma politikoak besterik ez dela. Zein dela uste duzue alderdi politikoaren eginkizuna eta erantzukizuna, euskararen normalkuntzari begira?

—Amaitu duzu?

—Ez, beste galdera bat ere ipini nahi nuke, aurrekoarekin lotuta dagoena. Orain dela hilabete batzu nere eskuetara iritsi zen «Euskararen normalizaziorako erakunde politiko» izeneko txosten bat; bertan euskaltzaleon erakunde politikoak, alderdi politikoaren gisakoa, proposatzen da. Gerotik izan ditu erantzunak edo komunikabideetan txosten horrek. Eta uste dudanez, ez du harrera handirik eduki euskaltzaleon artean. Zer derizkiozue zuek?

dian eritzi horiek gailentzea; baina azken batez, faltsotu besterik ez dute egiten jendaurrean beren alderdiaren jokabide politikoak.

Bigarren aldeari dagokionez, denok dakigu sarriegi negargarria dela alderdi politikoaren egoera eta jokabide konkretua, beren kideen eta gidarien euskaraz jakin beharri eta euskalduntzeari dagokionez. Agian behin baino gehiagotan adierazi izan dituzte asmo onak; baina sarriegi zurrutu ohi dituzte alderdiek beren buruak, gizartearen isplu besterik ez direla esanez, gizartearen dagoen euskararen egoera ispliatzen dela alderdiei. Ez dut uste horrelako arrazoiketarik onartzerik dagoenik. Gizartearen eta herriaren euskalduntzearen bultzatzaile eta bideratzaile izan behar duten bezala, euskararen berreskurapenaren gidari eta aintzindari izan behar dute alderdi politikoek: eredu, erakunde gisa.

Hori da alderdi politiko abertzaleei eska dakiekeen gutxiema. Horrela bakarrik eramango dituzte atzetik gizarte osoa eta alderdi politiko ez-abertzaleak.

Euskararen normalkuntzarako alderdi politiko espezifikoa asmo horri buruz zer? Euskararen berreskurapenaren protagonismoa herritari berari eta euskalgintzan eta euskal kulturagintzan dardhuden herritarakundeei dagokie; horien auteraketa eta koordinazioa behar-beharrezko dela esan behar da, benetakoko plataforma zabal eta indar eraginkorra izan dadin; bestalde, mugimendu eta koordinazio horrek ez du kultura hutsaren mailan ibiltzearen tentazioan erori behar; kultura apolitikorik ez

badago, hainbat eta gutxiago dago euskararen normalkuntzarako eta berreskurapenerako prozesu apolitikorik. Alde horretatik «politikoa» izan behar duela uste dute euskararen normalkuntzarako erakunde herritarak. Baina horrek ez du zuzenean zerkusirik politika partidistarekin, ezta botere politikoaren bila dabilen alderdi politikoarekin. Administrazio publikoari bezala, alderdi politikoak buruz ere jarrera irekia eta kritikoa izan behar duela uste dut horrelako organismo eta plataforma herritarak. Jakina, ezingo ditu alderdi politiko guztiak era berdinez juzgatu.

Euskararen normalkuntzari eta berreskurapenari begira horien abiaburuak, helburuak eta jokabideak berdinak ez direlako. Bakotzaren jokabideei buruzko eritziak ere ezingo dira beti berdinak izan. Dialektikoak izan behar dutela uste dut horien eta herri-organismoaren arteko harremanak.

Zuzen-zuzenean ez bada ere, goiko galdera erantzunda gelditu dela uste dut. Beste arazo politiko garrantziko bat dago tartean. Ez ote dago alderdi politikoaren artean akordio minimoarik lortzerik, euskararen normalkuntzarako? Euskara hizkuntza nazionalizat hartzen dutenen artean egingarria eta egin beharrekoa dela uste dut. Bi baldintza beharko lituzke horrek: Bat, ez du izan behar, bestelako alderdi politikoak baztertzeko guztiak proiektu nazionalera erakartzeko eta horretan gero eta gehiago inplikatzeko baizik; bi, horrelako akordioak herri-dinamikan oinarritu beharko luke batez ere,

eta ez alderdien arteko ezberdintasunak disimulatzean eta amore emate hutsen.

Lau oin hauek beharko lituzke horrelako akordioak mahaiak:

1. Euskal Herriaren ezaugarri eta osagarri funtsezkoak euskara. Bera da Euskal Herriaren hizkuntza nazionala.

2. Euskarak bere funtzioa beteko badu gaur, ezinbestekoa da horren normalkuntza, egoera diglosikoa gainditzeko.

3. Hizkuntz politikan erabateko lehenitasuna eman behar zaio euskararen berreskurapen personal, sozial, instituzional eta nazionalari; erabileran neurtzen da hori.

4. Helburu horretarako marko legal, instituzional eta administrazioa egokia lortu behar da, gaur oraindik Euskal Herriak ez duena.

Lau puntu horiek onartuz gero, hadirudi euskararen normalkuntzarako estrategia hikoitza behar dela: horren defentsarako erresistentzi estrategia, batetik, eta horren berreskurapenerako aurrerapen-estrategia, bestetik. Biak bereiztekin dira seguruenik: Jarkiera behar-beharrezkoa da, euskara erasoepen, ordezkapen-politika jakinaren pean eta normalkuntzarako baldintza legal eta instituzional egokirik gabe dagoen honetan, aurrerapenak oinarritzeko gabeak eta lilura hutsa izango ez badira; euskararen normalkuntzan egindako urratsak finkatzeko eta aurrerakoak azkartzeko eta zuzentzeko behar-beharrezkoa da aurrerapen-estrategia, programa eta plangintza egokian gauzatuko dena, eta azken helburua bistatik galduko ez duena. Helburua berreskurapena da noski, eta ez defentsa; arriskurik handiena da, iturraz berreskurapenaren bidean egiten diren urratsak benetan atzerabiderako izatea, defentsa ongi muntatu gabe dagoelako. Baina defentsa hutsaren estrategia ere ez du balio euskara berreskuratzeko: seguruenik ezta salbatzeko ere. Dena dela, gaurko egoeran oraindik, euskararen inguruko borrokarik eta lanik behinena, horren berreskurapen-plangintzarako baldintza politiko, legezko, instituzional horiek lortuz joatea dela uste dut.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

## Eusko Ikaskuntzaren argitarapen berriak

Eusko Ikaskuntzak, bere ohiko argitarapen barnean, Julio Caro Barojak zuzentzen duen Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariaren aurtengo 2. alea eta Musikako eta Natur Zientzietako Sailean 2 zk. koadernoak argitaratu ditu.

### RIEV-Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko aldizkaria

1985eko 2. ale honek, Tribuna sailean, honako artikulua hauek jasotzen ditu: Ricardo Ciervuelen «Semblanza y Obra de Ladislao de Velasco»; Jon Kortazarren «Jon Mirande eta Ironia»; Justo Garateren «Viaje de Von Jariges desde Bayona a Vitoria, Bilbao y Burgos en

1.802»; Manuel Lekuonaren «Gure Bertsoen metrika eta bertsolariaren pentsamendu ritmoa»; eta Federico Krutwigen «Crítica de la crítica».

Liburuaren aipamenean artean honako hauek ditugu: José Luis Orellak, Angel Zelaieta, Xosé Estevezek eta Pedro Ruiz Balerdik Martin Duque, Arantxa Urretabizkaia eta Joxe Mari Iturralde, Ramón Villares eta Mario Onaindia autore ezagunen liburuei buruz egindakoak. Bibliografia sailean Bizkaiko Hizkuntzako Bibliografia, Egunkariaren bitartez bildua (1931-36).

Berrien sailean nabarmenekoak dira José Javier Granjak

«Leoncio Urabayen y la Sociedad de Estudios Vascos» gaiatz emandakoa eta Roke Mendizabalaren «Arasateko Parrokoa eta Napoleón Bonaparte» gaiari buruz emandakoa.

### Musikako 2. Koadernoa

Musika Saileko 2. koadernoak honako aportunak ditu: Juan Cruz Labegaren «La Música de Viana (Navarra)»; Claudio Zudairearen «Organerías, notas sobre órganos y organistas de Gipuzkoa en el siglo XVII»; José López Caloren «Fray José de Vaquedano. Nuevas aportaciones a su biografía y al estudio de su obra»;

M Carmen Rodríguez Suso «En las fronteras de la tonalidad. El vértigo de un límite»; Joseba Olaizolaren «Euskal Eriaren eres ezitzea»; Jon Bagüesen «Catálogo de los fondos musicales antiguos de Laguardia, Alava».

### Natur Zientzietako 2. koadernoa

Natur Zientzien saileko 2. koadernoan ondoko lanak ematen dira argitaratuta: Antonio Bearen «La repartición de las víboras vipera aspis (Linnaeus, 1.758) y vipera seonei lateste, 1.879, en el País Vasco»; Alberto Gosaren «Taxonomía de las lagartijas del género podar-

cis en el País Vasco. Estudio biométrico»; M José Arrayago eta Antonio Bearen «Notas sobre la biología de rana temporaria L. en el País Vasco. Caracterización del habitat de reproducción»; Javier Zabalarren «Distribución y Biometría del género crociuida (Wagler 1.832) en el País Vasco»; Iñigo Mendiolaren «Estudio del ciclo reproductor del Gñis Gñis (Linnaeus 1.766) en el País Vasco»; Patxi Herasen «Primera aproximación al Catálogo biológico de Alava»; Luis Eguiluz eta Luis Martínezen «Sobre la existencia de una superposición de plegamientos en el Domo paleozoico de Oroz-Betelu. Navarra».